

## **ARGITALPENERAKO ARAUAK: TESTUAREN FORMATUA ETA AURKEZPENA:**

Artikulu osoa (abstrac edo laburpenik gabe) prestatu Word programaren bidez (Word programa erabiliko ez baduzue, bateragarriren bat erabili edo harremanetan jarri Euskara Institutuarekin) eta EHUko Euskara Institutura bidali (itziar.sarria@ehu.es) martxoa 31 baino lehen, fitxategi erantsi modura. Hala nahi izanez gero, diskete batean helarazi Euskara Institutura.

*Euskara Institutua  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
Liburutegi nagusia  
Leioako campusa  
48940 Leioa  
Bizkaia*

Artikuluak 27.000 karaktere izango ditu, gehienez.

Letra-mota: Times New Roman 12 puntukoa.

Lerro-tartea: 1,5.

Testuaren marjinak (denak): 2,5 cm.

Titulua letra larriz eta azpimarrarik gabe. Tituluaren azpian jarri, eskuinaldean, egilearen izena eta erakundea (biak letra xehez).

Aipamenak. Aipamen laburrak testuan bertan txertatu kakotx artean. Hiru lerrotik gorakoak, aparteko paragrafo batean jarri, alde bietan 1 cm-ko koska ezarrita, kakotxik gabe.

Aipamenaren erreferentzia parentesi artean jarri, honela (Johnson 1982:17). Parentesi berean egile bat baino gehiago jarri behar badira, kronologikoki ordenatu eta puntu eta komaz bereizi (Bybee 1973: 12; Croft 1981: 214; Burton 1992: 593). Egile batek urte berean argitaratu dituen hainbat lan aipatzen badira, gehitu letra xehea argitalpen urteari: (Sapir 1949a: 121), (Sapir 1949b: 98).

Adibidetegia osatzen duten esaldiak aparteko paragrafo batean jarri ezker eta eskuineko 1 cm-ko koska erabiliz. Erabili zenbakiak (1, 2, 3...) eta letra xeheak (1a, 1b...) adibideak antolatzeko.

Erdal hitzak letra etzanez markatu. Erabili letra etzana hitz-gakoren bat markatu nahi denean ere (letra etzanezko testu baten barruan hitzen bat markatu nahi bada, erabili letra-mota biribila hitz hori markatzeko)

Atalak. Ataletako tituluak letra larriz idatzi eta zenbakiz antolatu. Utzi lerro jauzi huts bat aurreko testuaren eta tituluaren artean, eta ez utzi jauzirik tituluaren eta ondorengo testuaren artean.

Oharrak. Erabili ohar laburrak bakarrik, testuaren inguruko azalpen gehigarriak emateko. Oin-ohar gisa prestatu, zenbakiz ordenaturik.

Puntuazio-markak (puntu, puntu eta koma...) kaketan ostean jarri (");(".)

Bibliografia. Artikuluan aipatu diren lanak bakarrik jarri bibliografian, era honetara:

Alexander, L. G. 1981. "Teaching Adult Beginners". In Johnson, M. & K. Morrow (ed.) *Communications in the Classroom. Applications and Methods for a Communicative Approach*. Londres: Longman.

Breen, M. P. 1980. "The Essentials of a Communicative Curriculum in Language Teaching". *Applied Linguistics*, 1, 2, 183-94 or..

Johnson, K. 1982. *Communicative Syllabus Design and Methodology*. Oxford: Pergamon Press.

Interneten argitaratu den lanen bat aipatzeko, eredu hau erabili:

Fauconnier, G. & M. Turner. 1994. "Conceptual projection and middle spaces". UCSD: Department of Cognitive Science Technical Report 9401. San Diego. [*Interneteko helbidea* <http://cogsci.ucsd.edu>; 2002-06-07an irakurria]

---

Zalantzaren bat baldin baduzu jo ezazu telefono jo helbide hauetako batera:

Pello Salaburu ([salaburu@ehu.es](mailto:salaburu@ehu.es)): 94.601.22.54

Igone Zabala ([igone.zabala@ehu.es](mailto:igone.zabala@ehu.es)): 94.601.26.99

Xabier Alberdi ( [xabier.alberdi@ehu.es](mailto:xabier.alberdi@ehu.es) ) 94.601.31.15

Joseba Ezeiza ( [joseba.ezeiza@ehu.es](mailto:joseba.ezeiza@ehu.es) ) 94.601.24.24

Itziar Sarria ([itziar.sarria@ehu.es](mailto:itziar.sarria@ehu.es)): 94.601.33.96